# GUARDIAKO AINTZIRAGUNEKO IBILBIDE BERDEA
# RUTA VERDE DEL COMPLEJO LAGUNAR DE LAGUARDIA





ARABA GOZAMENA! | ÁLAVA ¡DA GUSTO!
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

## SARRERA • INTRODUCCIÓN

*Carralogroño, Carravalseca eta Muscoko aintzirek eta El Prao de la Paúl urtegiak osatzen dute Guardiako aintziragunea, Ramsar zerrendan sartzen dena munduko hezegunerik garrantzitsuenen artean, baita Europako Natura 2000 sare ekologikoan ere. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoak babestutako biotopoa dira. Guardiako hiribildu monumentala hezegune hauetatik hurbil dagoenez eta aberastasun etnografiko, gastronomiko eta kultural handiko inguru pribilegiatuan kokatzen denez, ibilbide honek osagai guztiak ditu egun eder batez gozatzeko mahasti artean. Aintzira bakoitza bakarka bisita dezakezu, baina, 10 kilometroko ibilbide honetatik, aintziragune osoa bisitatu ahalko duzu, Ardoaren eta Arrainaren ibilbideko (GR-38) urratsak eginez. Errioxako lurren eta Bizkaiko kostaldeko itsas portuen arteko merkataritza bidea zen, antzina, ibilbide hori.*

Las lagunas de Carralogroño, Carravalseca, Musco y la balsa de El Prao de la Paúl conforman el Complejo Lagunar de Laguardia, incluido en la lista Ramsar entre los humedales más importantes del mundo, en la Red Ecológica Europea Natura 2000, y son además biotopo protegido por la Comunidad Autónoma Vasca. La proximidad de estos humedales a la villa monumental de Laguardia y su privilegiada ubicación en un entorno de gran riqueza etnográfica, gastronómica y cultural, confieren a esta ruta los ingredientes necesarios para disfrutar de una jornada completa…entre viñedos. Puedes conocer cada laguna por separado pero a través de este itinerario de 10 kilómetros te proponemos visitar todo el complejo lagunar siguiendo los pasos de la Ruta del Vino y el Pescado (GR-38), antiguo camino de comercio entre las tierras riojanas y los puertos marinos de la costa de Bizkaia.



# IBILBIDEA • RECORRIDO

| | |
|---|---|
| **0 km** | *Gure abialekua Guardia herriaren amaierako urbanizazio batean dagoen aparkalekua da. Hiribildutik irten bezain azkar, herriaren amaierako kartela pasatu ondoren, ezkerraldean ikusiko dugu aparkalekua, Logroñoko noranzkoan. Errepidea gurutzatu eta, ezkerrera metro gutxi egin ondoren, eskuinaldean dagoen asfaltozko pista hartuko dugu, bi upeltegitara doana.*<br>Nuestro punto de arranque es la zona de aparcamiento que se encuentra en una urbanización a la salida de la localidad de Laguardia. Nada más abandonar la villa, después de pasar el cartel del final del pueblo, encontraremos el aparcamiento a la izquierda, camino de Logroño. Cruzamos la carretera y a pocos metros a la izquierda, tomamos una pista asfaltada a la derecha en dirección a dos bodegas. |
| **0,8 km** | *Bidea banatzen da. Eskuinetik jarraituko dugu, asfaltozko bidetik. Eskuineko bidetik jarraituko dugu, eta aurrera egin ahala, Carravalsecako aintzira ikusiko dugu gure ezkerraldean.*<br>Bifurcación. Seguimos por la derecha por el camino de asfalto. Seguimos por el camino de la derecha y según avanzamos encontraremos la laguna de Carravalseca a nuestra izquierda. |
| **2,6 km** | *Bidea banatzen da. Ezkerrera bira egin eta, asfaltozko bidea jarraituz, GR-38ra bueltatuko gara. Bide hori izango da gure gida ibilbidearen zati handi batean.*<br>Bifurcación. Giramos a la izquierda y siguiendo el camino de asfalto nos incorporamos al GR-38 que será nuestra guía en buena parte del recorrido. |
| **2,8 km** | *Ezkerrera bira egingo dugu. Asfaltozko bidea utzi eta pista bat hartuko dugu.*<br>Giramos a la izquierda. Dejamos la vía asfaltada y tomamos una pista. |
| **3,1 km** | *Bidea banatzen da. Ezkerretik jarraituko dugu.* / Bifurcación. Seguimos por la izquierda. |
| **3,7 km** | *Gure ezkerraldean pista bat dago. Bazter utzi eta zuzen jarraituko dugu, eskuinetik.*<br>A nuestra izquierda sale una pista. La obviamos y seguimos recto por la de la derecha. |
| **4 km** | *Bidea banatzen da. Zuzen jarraituko dugu, ezkerreko bidetik.* / Bifurcación. Seguimos de frente, por el camino de la izquierda. |
| **4,4 km** | *Igoera txiki baten ostean, bidegurutze bat aurkituko dugu eta eskuinera jo beharko dugu. Aurrera egin ahala, Carralogroñoko aintzira ikusiko duzu ezkerrean.*<br>Tras una leve subida llegamos a un cruce en el que giramos a la derecha. Según avanzas verás la laguna de Carralogroño a tu izquierda. |
| **5,3 km** | ***Kontuz! Errepide honetan zirkulazio handia dago* / ¡Precaución! Carretera con mucho tráfico**<br>*A-124ra iritsiko gara. Berau hartu eta 150 metro egingo ditugu bizikletan, eskuinaldera.*<br>Llegamos a la A-124. La tomamos y ciclamos 150 metros hacia la derecha. |
| **5,5 km** | *Errepidearen beste aldean, gure ezkerrera, bihurgunea baino lehen, asfaltozko bide bat dago. GRko markak jarraituko ditugu, mahasti artean doan bide batean barna.*<br>Al lado contrario de la carretera a nuestra izquierda, antes de la curva, parte un camino asfaltado. Seguimos las marcas del GR adentrándonos en un paseo entre viñedos. |

INTERESGARRIA ? PAISAIA

*Inguruko paisaia tipikoaz gozatzeko beta duzu, mahasti artean, Kantabria Mendilerroa atzean duzula, Natura 2000 sarearen parte dena.*
*Disfruta del paisaje típico de la zona, rodeado de viñedos, con la Sierra de Cantabria, incluída en la Red Natura 2000, como fondo.*



| | |
|---|---|
| **6,3 km** | *Ezkerreko bidetik zuzen jarraituko dugu.* / Seguimos recto por el camino de la izquierda. |
| **7 km** | *Bidea banatzen da. Ezkerreko bidea hartuko dugu.* / Bifurcación. Tomamos el camino de la izquierda. |
| **7,2 km** | *Eskuinera bira egingo dugu, asfaltozko bidea utziz, eta pista hartuko dugu, GRko markei jarraiki.*<br>Giramos a la derecha abandonando la vía asfaltada y cogemos la pista siguiendo las marcas del GR. |
| **7,5 km** | *Ezkerrera bira egingo dugu pista batetik eta gero, berehala, eskuinera, GRko markei jarraiki.*<br>Giramos a la izquierda por una pista y enseguida a la derecha, siguiendo las marcas del GR. |
| **7,6 km** | *Malda txiki bat jaitsiko dugu bizikleta eskuan, El Prao de la Paúl urmaela inguratzen duen pista hartu ahal izateko. Eskuinera jarraituko dugu, beste norabide batean jarraitzen duen GRtik irtenda.*<br>Bajamos una pequeña pendiente con la bici en la mano para poder tomar la pista que rodea la balsa El Prao de la Paúl. Seguimos hacia la derecha abandonando el GR que sigue en otra dirección. |
| **7,9 km** | *Ezkerrera hegaztien behatokira irits daiteke.* / A la izquierda podemos llegar al observatorio de aves. |
| **8,6 km** | *Bidegurutzea. Ezkerrera joko dugu. Zuzen jarraituz gero Guardiarantz igoko ginateke.*<br>Cruce. Seguimos hacia la izquierda. Siguiendo recto ascenderíamos hacia Laguardia. |
| **8,8 km** | *Ezkerretik jarraituko dugu aintzira inguratuz.* / Seguimos por la izquierda bordeando la laguna. |
| **9,4 km** | *Ezkerretik jarraituko dugu.* / Seguimos por la izquierda. |
| **9,5 km** | *Puntu honetan aintziratik irten eta eskuinera bira egingo dugu.* / En este punto abandonamos la laguna, girando a la derecha. |
| DE INTERÉS PAISAJE | *Aurrez aurre, leku garai batean, behatoki bat dago, ikuspegi ederrak gozatzeko: aintzira, Guardia hiribildua eta Kantabria Mendilerroa. Argazki kamera eskura edukitzea komeni da.*<br>*En frente, en una zona alta, hay un mirador del que podemos disfrutar de unas bellas vistas de la laguna, de la Villa de Laguardia y la Sierra de Cantabria. Ten la cámara de fotos a mano.* |
| **9,8 km** | *Bidegurutzea. Ezkerrera joko dugu asfaltozko bide batetik.* / Cruce. Giramos a la izquierda por una vía asfaltada. |
| **10 km** | *Urbanizazioaren hasieran eskuinera bira egingo dugu eta hasierara iritsiko gara. Ibilbidearen amaiera.*<br>Giramos a la derecha en el principio de la urbanización y llegamos al punto de inicio. Fin del recorrido. |





## IBILBIDEAREN PROFILA • PERFIL DEL RECORRIDO



# KOKAPENA • MAPA DE SITUACIÓN

***Nola heldu:*** *Guardiatik, A-2624*

***Distantzia, guztira:*** *10 kilometro*

**Gutxi gorabeherako iraupena bizikletaz:** 1 hora

**Gutxi gorabeherako iraupena oinez:** 2 horas

***Zailtasuna:*** *Txikia*

***Gomendatutako bizikleta:*** *Paseokoa*

***Desnibel metatua:*** *102 metro*

**Acceso:** Desde Laguardia, por la A-2124

**Distancia total:** 10 kilómetros

**Tiempo estimado en bici:** 1 hora

**Tiempo estimado andando:** 2 horas

**Dificultad:** Baja

**Bicicleta recomendada:** Paseo

**Desnivel acumulado:** 102 metros

## *GR-38: ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA*

*Ibilbide luzeen artean tradizio gehien dutenetako bat da. Ardoaren eta Arrainaren bidea izeneko hau erabili ohi zuten **mandazainek Arabako Errioxako ardo preziatua Durango eta Bermeoraino garraiatzeko.** Bueltan, gatzunetan eramaten zuten Bizkaiko portuetako arraina.*

*GR-38k hegotik iparrera zeharkatzen du Araba, kontrastez beteriko 105 kilometrotan Oion Legutiorekin lotuz.*

## GR-38: LA RUTA DEL VINO Y EL PESCADO

Es uno de los senderos de gran recorrido con más "solera". Conocido como la Ruta del Vino y el Pescado, era la vía utilizada por **los arrieros que transportaban hasta Durango y Bermeo** los preciados **vinos de Rioja Alavesa**. A su regreso, traían pescado en salmuera descargado de los puertos de Bizkaia.

El GR-38 atraviesa Álava de Sur a Norte, a lo largo de los 105 kilómetros de contrastes que unen Oyón con Legutio.



## LEKU INTERESGARRIAK • PUNTOS DE INTERÉS



### GUARDIAKO AINTZIRAK

*Biotopo babestu hau atsedenleku bihurtu da ehunka hegazti espezierentzat, batez ere irailetik martxora.* ***Lertxun hauskara, murgil handia edo zingira mirotza*** *aintzira hauetako biztanleak dira, eta, uda garaian* ***amiltxori arrunta, lertxun gorria edo argi oilarra*** *ere batzen dira, besteak beste. Lezkadietan* ***basahateak, kopetazuriak eta txilinportak*** *ugaltzen dira, eta alga espezie berezi batzuekin batera bizi dira, lurrean metatutako gatz eta mineralei nahiz ur hauen ezaugarri bereziei esker.*

*Inguru honek hegaztiak ikusteko erraztasunak ditu.* ***El Prao de la Paúl urmaelean*** *behatoki bat eta talaia bat aurkituko dituzu. Gainerako hezeguneetan hegaztiak ikustea erraza da, eta ibilbidea egokituta dago irisgarritasun arazoak dituzten bisitarientzat.*

### LAGUNAS DE LAGUARDIA

Este Biotopo protegido se ha convertido en lugar de descanso para cientos de especies diferentes de aves, en especial durante el periodo de septiembre a marzo. La **garza real, el somormujo lavanco o el aguilucho lagunero** son especies residentes del conjunto lagunar, familias a las que se suman en época estival el **martinete común, la garza imperial o la abubilla**, entre otros. En sus carrizales se reproducen **azulones**, **fochas y zampullines** que comparten hábitat con especies únicas de algas, que proliferan gracias a las sales y minerales acumulados en el suelo y a las características especiales de estas aguas.

El conjunto ofrece facilidades para la observación de aves. En la **balsa El Prao de la Paúl** encontrarás un observatorio y una atalaya. En el resto de humedales la observación es sencilla y el recorrido está adaptado para visitas con necesidades de accesibilidad.

## NATURA ETA PAISAIA
## NATURAL Y PAISAJÍSTICO

1. *Carralogroño aintzira*
   Laguna de Carralogroño
2. *Carravalseca aintzira*
   Laguna de Carravalseca
3. *Musco aintzira*
   Laguna de Musco
4. *El Prao de la Paúl urmaela*
   Balsa El Prao de la Paúl

*Inguruan* / En las cercanías:

- *Ebro ibaia - Natura 2000 Sarea*
  Río Ebro - Red Natura 2000

## EZ GERATU IKUSI GABE... • NO TE PUEDES PERDER...

### *GUARDIA, LABASTIDA, LABRAZA....*

*Arabako Errioxan, ardoaren kulturaren inguruan dauden erakargarri guztiez gain, ondare aberatsa dago, inguru hauek leku bakar eta berezi egiten dituena.* ***Harresitutako hiribilduak*** *eta historiaurreko aztarnak lehian daude, zein ederrago, eskualdea zaintzen duen Toloño mendiko natura ikusgarriarekin. Ezinbestekoa da* ***Guardia*** *hiribildua bisitatzea, egoera oso onean baititu* ***Erdi Aroko harresia*** *eta kale eta eraikinen sarea, iraganera bidaiatzeko aukera ona.* ***Erregeen Santa Maria****ren eliza ere ikusi beharrekoa da (hiribilduko irudirik ospetsuenetakoa da portadako polikromia, XVII. mendekoa); baita beste hauek ere:* ***Done Joan eliza gotikoa, udaletxe errenazentista*** *eta Samaniego alegialariaren jaiotetxea.*

*Inguruan, mahasti eta olibondoz jantzita,* ***Bastida, Kripan, Bilar*** *eta* ***Villabuena*** *herri ederrak; harrituko egingo gaituzte, oinetxeak bere horretan mantendu baitituzte.* ***Erdi Aroko Labraza hiribildu*** *zoragarriak ere merezi du geldialdi bat egitea.*

*Kontraste gisa, nabarmen agertzen dira mahastizaintzari lotutako eraikin berriak, ardoaren kultura eta* ***arkitektura ikusgarria*** *batuz: besteak beste,* ***Santiago Calatrava*** *eta* ***Frank Gehry*** *ospetsuenak.*

### LAGUARDIA, LABASTIDA, LABRAZA....

Rioja Alavesa atesora, además de todos los atractivos que rodean a la cultura del vino, un legado patrimonial que la hacen única. **Villas amuralladas** y vestigios prehistóricos compiten en belleza con la naturaleza imponente de la Sierra de Cantabria que custodia la comarca. No dejes de visitar la villa de **Laguardia** que conserva en muy buen estado su **muralla medieval** y un entramado de calles y edificaciones que te llevarán al pasado. No te pierdas su iglesia de **Santa María de los Reyes** (la policromía de su portada del siglo XVII es una de las imágenes emblemáticas de la villa); la **Iglesia gótica de San Juan**, el **ayuntamiento renacentista** y la casa natal del fabulista Samaniego.

En el entorno, bañadas por viñedos y olivares, **Labastida**, **Kripán**, **Elvillar** o **Villabuena** sorprenden por su belleza y por conservar intactas casas solariegas. La espectacular **villa medieval de Labraza** merece también un alto en el camino.

Como contraste, destacan las nuevas construcciones ligadas al mundo vitivinícola, que aúnan cultura del vino con **arquitectura espectacular**, con las firmas de **Santiago Calatrava** y **Frank Gehry** como principales garantes de prestigio.





*INFORMAZIOA ETA TRACKAK ESKURATZEKO*
DESCARGA DE INFORMACIÓN Y TRACKS

1 www.alava.net/web/reditinerariosverdes
2 www.alava.net/web/ibilbideberdeensarea

*GUARDIAKO TURISMO BULEGOA*
OFICINA DE TURISMO DE LAGUARDIA

www.laguardia-alava.com
Tel/fax 945 60 08 45
turismo@laguardia-alava.com

112 SOS DEIAK

CUADRILLA DE LAGUARDIA RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava